



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

### TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN AKTA

**Batzordea:** Tokiko Gobernu Batzarra  
**Bilera-zenbakia:** 2008ICGO0009  
**Eguna:** 2008/08/21-2008/08/22  
**Ordua:** 10:00-10:20 eta 09:30-10:30  
**Tokia:** Alkatetza

#### Bertaratuak

- Bixente Arrizabalaga Bengoetxea EA
- Eloy Bazan Bazan EA
- Maria Jesús Arruabarrena Izaguirre EAJ/PNV

#### Bertaratu ez direnak

- Jesús Fontal García EAJ/PNV

#### Idazkaria

- Xabin Olaizola Lasa

EGUNEKO AZTERGAIK	Zk / Nº	ORDEN DEL DIA
Hasierako onarpena, AIU-9 Ergobia Ibilbideko hirigintza- antolamenduko eremuaren Plan Bereziari buruzkoa.	1	Aprobación inicial del Plan Especial del ámbito de ordenación urbanística de A.I.U-9 Ergobia Ibilbidea

#### Esan-eginak eta erabakiak

##### 1.- Hasierako onarpena, AIU-9 Ergobia Ibilbideko hirigintza-antolamenduko eremuaren Plan Bereziari buruzkoa.

Alkateak batzarrari hasiera eman dio, eta batzarra ohiz kanpo eta premiaz deitzeko arrazoi adierazi du: AIU-9 Ergobia Ibilbideko Plan Bereziari hasierako onarpena ematea.

Batzarkideek premiazko deialdia berretsi dute, eta batzarra alkatearen azalpenarekin hasi da. Plan Bereziaren xedea 2008ko martxoaren 11n Diputatuen Kontseiluak behin betiko onarturiko Plan Orokorra garatzea dela adierazi du alkateak. Eta Plan Orokor horretan ezarritakoa zorrotz betetzeko asmotan, plan orokorraren idazlari taldeari agindu diola Plan Berezia idaztea.

##### 1.- Aprobación inicial del Plan Especial del ámbito de ordenación urbanística de A.I.U-9 Ergobia Ibilbidea

El Alcalde da inicio a la Junta señalando que ha convocado la junta con carácter extraordinario y urgente a los efectos de proceder a la aprobación inicial del Plan Especial de A.I.U-9 Ergobia Ibilbidea.

Los miembros de la Junta ratifican la convocatoria por urgencia y se inicia la Junta con la exposición del Alcalde, que indica que este Plan Especial viene a desarrollar el Plan General aprobado definitivamente por el Consejo de Diputados con fecha 11 de marzo de 2008. Y a los efectos de ajustarse estrictamente a las determinaciones del Plan General ha solicitado al propio equipo redactor del plan general la redacción de este Plan Especial.

Jarraian, idazkari kontu-hartzaileak Plan A continuación el Secretario Interventor da



## Astigarragako Udala

Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención  
idazkaritza@astigarraga.net

Bereziaren onarpenaren inguruan egindako txostena irakurri du. lectura al informe emitido en relación a la aprobación del Plan Especial.

Txostena eztabaidatu da, eta alkateak adierazi du idazlari taldea txosten bat lantzen ari dela horren inguruan. Horrenbestez, ezinbestekotzat jo du batzarra atzeratzea, hurrengo egunean, abuztuaren 22an, jarraitzeko, 09:30ean. Se debate el informe y el Alcalde señala que el equipo redactor esta elaborando un informe al efecto por lo que entiende pertinente hacer un receso en la junta, que se retomará nuevamente mañana día 22 de agosto a las 09:30 horas.

22an batzarra berriz ere hasi da, 09:30ean, eta aurreko eguneko guztiak bertaratu dira. Se retoma la reunión el día 22 a las 09.30 horas contando con la misma asistencia del día anterior.

Juan Ignacio Izetak eginiko txostena irakurri da. Se da lectura al informe emitido por Juan Ignacio Izeta.

Alkateak adierazi duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak ere Juan Ignacio Izetak baliatutako irizpidea egiaztatu die. El Alcalde manifiesta que la propia Diputación Foral de Gipuzkoa les ha confirmado el criterio sostenido por Juan Ignacio Izeta.

Eztabaidatu ondoren, batzarkideek honako erabaki hauek hartu dituzte: Tras un debate los miembros de la Junta, acuerdan por unanimidad los siguientes acuerdos:

1.- Astigarragako AIU-9 Ergobia Ibilbideko hirigintza-antolamenduko eremuaren Plan Bereziari hasierako onarpena ematea. 1.- Aprobar inicialmente el Plan Especial del ámbito de ordenación urbanística de A.I.U-9 Ergobia Ibilbidea de Astigarraga.

2.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean jendaurrean jartzea, 20 egunez, interesdunek Hirigintza departamentuko udal-dependenzietan dokumentua ikusteko eta beharrezkotzat jotzen dituzten alegazioak aurkezteko aukera izan dezaten. 2.- Proceder a su exposición pública en el B.O.G durante el plazo de 20 días, a los efectos de que los interesados puedan revisar el documento en las dependencias municipales del departamento de Urbanismo y realicen las alegaciones que estimen necesarias.

3.- Erabaki hau probintziako hedapen handieneko bi egunkaritan argitaratzea. 3.- Igualmente publicar este acuerdo en dos periódicos de mayor circulación de la provincia

Bilera amaitutzat eman dugu 10:30ean eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egin dut.

Astigarraga, 2008ko abuztuaren 22a

Xabier Olaizola Lasa  
Idazkari Kontu-hartzaile  
Astigarragako Udala